4 420.99 2015	SUBVENCIONES DE DIPUTACION	121.440,91	74.473,30	46.967,61
4 113.01 2014	IMP.S/VEHICULO DE TRACCION MECANICA	51.443,47	3.236,89	48.206,58
4 113.01 2015	IMP.S/VEHICULO DE TRACCION MECANICA	66.587,06	16.053,07	50.533,99
4 399.01 1998	OTROS INGRESOS DIVERSOS (REC.EVENTUALES)	66.132,29	14,18	66.118,11

7.- DIRUZAINZAKO GERAKINAREN BIDEZ FINANTZATUTAKO OBLIGAZIOAK

Aurtengo ekitaldiaren barruan hainbat kreditu aldaketa onartu da, lehen adierazitakoaren arabera. Aldaketa horiek finantzatzeko, besteak beste, iaztik zetorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina erabili da. Beraz, gastuen aurrekontuko kredituak ekitaldi bereko baliabideen bitartez finantzatu dira zati batean, eta aurreko ekitaldietakoen bitartez, beste zati batean. Aurrekontu emaitza zehazterakoan xehetasun hori kontuan hartu beharko da, hala jasotzen baitu 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 48.4 artikuluan.

Aurtengo ekitaldiko gastuen aurrekontuan, ondoko hauek dira gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren bitartez finantzatutako kredituak eta abenduaren 31n lortutako gauzatze maila:

PARTIDA	AZALPENA	B.BET.KRED.	OBL.ONART.
		DGrekin FINAN	DGrekin FINAN.
210.01.133.00	MANT.SENALIZAC.VIARIA. CONTROL TRAFICO	745,97	0,00
210.01.153.40	MANT.INSTALACIONES. VIAS PUBLICAS	1.624,26	999,95
212.01.133.00	MANT.MAQUIN.UTILLAJE. CONTROL TRAFICO	1.067,20	1.137,78
212.01.171.10	MANT.INSTALACIONES. PARQUES Y JARDINES	1.518,95	1.543,09
213.01.163.00	MANT.VEHICULOS. LIMPIEZA VIARIA	1.340,86	1.548,34
221.05.163.00	VESTUARIO. LIMPIEZA VIARIA	297,66	301,30
221.09.171.10	PRODUCTOS LIMPIEZA. PARQUES Y JARDINES	4.382,13	3.157,29
221.99.163.00	MATERIAL ESPECIAL. LIMPIEZA VIARIA	1.844,17	1.871,58
226.04.920.00	ASISTENCIA JURIDICA. ADMINISTR.GENERAL	1.452,00	0,00
226.06.231.50	ACTUACIONES SENSIBILIZACION. PR.IGUALD	641,99	0,00
226.99.153.40	GASTOS DIVERSOS. VIAS PUBLICAS	260,15	332,76
226.99.334.00	GASTOS DIVERSOS. CULTURA	2.550,91	2.539,54
226.99.335.00	GASTOS DIVERSOS. PROMOCION EUSKERA	3.389,39	3.262,49
226.99.335.00	GASTOS DIVERSOS. PROMOCION EUSKERA	3.998,88	0,00
226.99.338.20	EUSKAL JAIK. ASTEAZKENA	1.050,00	1.079,71
226.99.338.30	FIESTAS NAVIDENAS	2.003,94	0,00
226.99.430.00	ACTIVIDADES DE DINAMIZACION COMERCIAL	2.345,20	2.901,94
226.99.431.10	MERCADO EXTRAORDINARIO DE NAVIDAD	7.572,79	0,00
227.05.132.00	CONTRATO CUSTODIA DE ANIMALES	644,54	593,43
227.07.151.00	ESTUDIOS TECNICOS. URBANISMO	1.573,00	0,00
227.07.912.00	ESTUDIOS Y TRABAJOS TECNICOS	6.292,00	6.292,00
470.01.241.00	APORTACION A GOIEKI. FOMENTO EMPLEO	4.147,46	4.147,42
471.01.430.00	TRANSFERENCIAS A EMPRESAS	4.815,80	4.235,00
481.01.135.00	TRANSFERENCIAS. PROTECCION CIVIL	4.500,00	4.500,00
481.01.135.00	TRANSFERENCIAS. PROTECCION CIVIL	4.500,00	4.500,00
481.01.241.00	TRANSFERENCIAS GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA	43.650,00	43.650,00
481.01.334.00	TRANSFERENCIA INSTITUCIONES. CULTURA	7.348,00	7.348,00
481.01.335.00	TRANSFERENCIAS. PROMOCION EUSKERA	442,92	398,76
481.01.337.10	SUBVENCION ACTIVIDADES. HOGAR JUBILADO	5.900,00	5.900,00
481.01.414.00	SUBVENCION COFRADIA DEL QUESO	658,00	0,00
481.01.432.00	TRANSFERENCIAS INSTITUCIONES. TURISMO	2.000,00	2.000,00
481.02.231.00	TRANSF. INSTITUCIONES SIN FINES DE LUCRO	4.974,63	4.175,37
481.02.323.30	SUBVENCION GASTOS MANTENIMIENTO	21.568,29	21.568,29
481.03.231.00	OTRAS SUBVENCIONES. BIENESTAR SOCIAL	2.000,00	0,00

601.01.152.20	INVERSIONES. ACCESIBILIDAD	50.000,00	0,00
601.01.153.40	ESPALOIEN KONPONKETA	61.745,00	34.386,10
601.01.171.10	ARREGLOS EN PARQUES Y JARDINES	8.847,14	4.350,33
601.02.153.40	OBRAS MENORES	8.622,12	8.110,70
601.04.153.20	ASFALTADO DE VIALES	60.921,73	48.474,72
601.08.153.40	RENOVACION PASEO JUNTO AL RIO EN BUSTUNT	60.000,00	0,00
620.01.170.00	PREPARACION DE UNA HUERTA ECOLOGICA	20.000,00	0,00
622.01.171.20	BASERRIAREN KONPONKETA (2. SOLAIRUA)	40.000,00	0,00
622.01.912.00	LOCAL PARA CEREMONIAS CIVILES	30.000,00	0,00
622.01.933.00	COMPRA DE LOCAL EN JOSE ARANA	128.923,23	923,23
623.02.153.40	ESTUDIO CUBRICION PLAZA GARAGARZA	8.000,00	0,00
623.02.162.30	INSTALACIONES. PUERTA A PUERTA	7.302,43	5.560,14
623.02.165.00	ARGITERI PUBLIKOAN HOBEKUNTZAK	10.900,00	10.545,47
623.02.171.10	RENOVACION JUEGOS EN PARQUES	28.893,00	27.022,69
623.02.171.20	INBERTSIOAK OIANGUN	12.099,98	12.099,98
623.04.132.00	UTILES,HERRAMIENTAS. POLICIA MUNICIPAL	832,75	832,75
623.04.135.00	UTILES Y HERRAMIENTAS. PROTECCION CIVI	2.073,09	2.073,09
623.04.151.00	UTILES. URBANISMO	1.875,00	1.874,29
623.04.163.00	UTILES Y HERRAMIENTAS. LIMPIEZA	10.000,00	1.617,48
623.04.163.00	UTILES Y HERRAMIENTAS. LIMPIEZA	5.700,86	5.458,05
623.04.171.10	UTILES Y HERRAMIENTAS	816,08	1.066,24
623.04.171.10	UTILES Y HERRAMIENTAS	5.335,28	5.020,16
624.01.153.40	FURGONETA. OBRAS	16.600,00	16.326,06
625.01.432.00	MEJORA DE LA SENALETICA URBANA	16.640,00	10.080,91
625.01.933.00	MOBILIARIO. VIVIENDA	10.655,00	10.655,00
628.01.332.10	ADQUISICION FONDOS BIBLIOGRAFICOS	240,32	239,97
629.01.431.10	VESTUARIO. FERIA MEDIEVAL	1.781,12	1.781,12
642.01.151.00	REDACCION PLAN GENERAL	30.219,80	0,00
643.01.342.00	ESTUDIO INSTALACIONES MAJORI	60.000,00	0,00
649.01.133.00	ALDE ZAHARREKO TRAFIKO PROGRAMA	833,00	0,00
721.01.162.10	TRANSFERENCIAS CAPITAL. MANCOMUNIDADES	133.722,00	121.121,43
781.01.241.00	INVERSIONES ESCUELA DEL GOIERRI	30.580,00	30.580,00
822.01.341.00	PRESTAMOS A CORTO PLAZO. MAJORI	250.000,00	250.000,00
GUZTIRA		1.267.260,02	740.183,96

8.- DESBIDERAPEN FINANTZARIOAK, FINANTZAKETA LOTUA DUTEN GASTUETAN

KONTZEPTUA	KOBR. GABEKO HASIER. SALDOA	SALDO BERMATUA	KOBRAGAITZA %- TAN.	KOBRAGAITZA EUROTAN
2 URTETIK GORAKO ZORRAK	840.221,14	0,00	100,00	840.221,14
URTEBETETIK GORAKO ZORRAK	191.235,41	0,00	0,00	0,00
1. kap.: zuzeneko zergak	76.641,76	0,00	0,00	0,00
2. kap.: zeharkako zergak	754,42	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	43.296,94	0,00	0,00	0,00
4. kap.: transferentzia arruntak	70.122,11	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	420,18	0,00	0,00	0,00
URTEBETETIK BEHERAKO ZORRAK	591.659,85	0,00	0,00	0,00
1. kap.: zuzeneko zergak	124.776,90	0,00	0,00	0,00
2. kap.: zeharkako zergak	36.354,91	0,00	0,00	0,00
3. kap.: tasak eta bestelako sarrerak	115.751,96	0,00	0,00	0,00
4. kap.: transferentzia arruntak	189.903,42	0,00	0,00	0,00
5. kap.: ondare sarrerak	1.484,55	0,00	0,00	0,00
7. kap.: kapital transferentziak	88.388,11	0,00	0,00	0,00
8. kap.: aktibo finantzarioak	35.000,00	0,00	0,00	0,00
GUZTIRA	1.623.116,40	0,00	0,00	840.221,14

Ez daude finantzaketa lotuko gastuak.

9.- SALDO KOBRAGAITZEN ESTIMAZIOA

Hurrengo taulan jasoko da kobragaitzak edo kobraezinak diren eskubideen estimazioa.

10.- AURREKONTU EMAITZA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du aurrekontu emaitza.

Aurrekontu emaitza magnitude ekonomikoa da, eta hauxe adierazi nahi du: ekitaldian onartutako eskubideak noraino izan diren nahikoak finantzatu behar ziren obligazioei aurre egiteko (eta, halakorik balitz, itxitako ekitaldietako zenbait eragiketa aurtengo ekitaldian deuseztatzeak sortutako defizitari aurre egiteko).

AURREKONTUAREN EMAITZA			
KONTZEPTUAK	ONARTUTAKO ESKUBIDE GARBIAK	ONARTUTAKO OBLIGAZIO GARBIAK	URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	11.224.568,54	10.211.686,23	1.012.882,31
b) Kapital-eragiketak	94.488,45	695.794,26	-601.305,81
c) Aktibo finantzarioak	47.875,00	289.945,00	-242.070,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	379.389,02	-379.389,02
1. URTEKO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA (1=a+b+c+d)	11.366.931,99	11.576.814,51	-209.882,52
KONTZEPTUAK	AINTZATETSITAKO ESKUBIDEAK EZEZTATZEA	AINTZATETSITAKO OBLIGAZIOAK EZEZTATZEA	ITXITAKO EKITALDIETAKO ADURREKONTU- EMAITZA
a) Eragiketa korronteak	61.528,35	1.610,00	-59.918,35
b) Kapital-eragiketak	5.446,26	-0,00	-5.446,26
c) Aktibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
d) Pasibo finantzarioak	0,00	0,00	0,00
2. ITXITAKO EKITALDIETAKO AURREKONTU-EMAITZA (2=a+b+c+d)	66.974,61	1.610,00	-65.364,61
3. DOIKUNTZEN AURREKO AURREKONTU-EMAITZA (1+2)			-275.247,13

DOIKUNTZAK :	
a) Gastu orokorretarako diruzainzako gerakinarekin finantzatutako kreditu gastatuak	
b) Ekitaldiko finantziario-desbideratze negatiboak	740.183,96
c) Ekitaldiko finantziario-desbideratze positiboak	0,00 0,00
4. DOIKUNTZAK GUZTIRA (4=a+b-c)	740.183,96
AURREKONTU- EMAITZA DOITUA (3+4)	464.936,83

11.- DIRUZAINZAKO GERAKINA

21/2003 Foru Arauak 48. artikuluan arautu du diruzaintzako gerakina.

Diruzaintzako gerakina magnitude finantzarioa da, eta entitateak epe laburrera izango duen likideziaren soberakina adierazten du. Bestela esanda: diruzaintzako gerakina ondoko egoera gertatuko balitz entitateak izango lukeen dirutzak osatzen du: epe laburrera kobratu gabeko eskubideen epemuga amaitu eta abenduaren 31n kobratzea, eta bilketa horren emaitzarekin eta data horretako fondo likidoekin epe laburrera ordaindu gabeko obligazioei aurre egitea, horien epemuga ere abenduaren 31n amaituko litzatekeela pentsatuz.

Hiru dira diruzaintzako gerakinaren osagaiak:

- Kobrantza zalantzarriko saldoetarako hornidura.

- Gehiegizko finantzaketa lotua.
- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.

Kobranta zalantzarriko saldoetarako hornidura enteak kobragaitz edo kobraezintzat hartutako eskubide kobratu gabeen estimazioa da. Kobratu gabeko eskubide horiek 9. apartatuan zehazten dira.

Gehiegizko finantzaketa lotuak bi osagai ditu. Alde batetik, finantzaketa lotua duten gastuetan metatutako desbiderapen finantzario positiboek osatzen dute eta desbiderapen horiek ekitaldiaren amaieran kalkulatu dira erakunde finantzazailerako bakoitzarentzat eta, bere sorreran datzan gastu bera finantzatzeko erabili behar da, edota halakorik balitza, proiektatu den gastua osorik edo zati batean burutu ez izanak nahiz burutzeari uko egin izanak sortutako obligazioak estaltzeko. Bestalde, kontuan hartzen ditu baita ere, entitateak zuzkitu dituen beste hornidura batzuk.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina kalkulatzeko, diruzaintza gerakinari estimatutako kobrantza zalantzarriko saldoak eta gehiegizko finantzaketa lotua kenduko dizkiogu.

DIRUZAINZAKO GERAKINA		
Kontu zbk.	Osagaiak	Ekitaldia
57	1. (+) Funts likidoak	2.072.176,55
	2. (+) Kobratzeke dauden eskubideak	1.685.900,02
430,433,437,438	-(+) urteko aurrekontukoak	639.531,22
431,434,439	-(+) itxitako aurrekontutakoak	1.031.456,55
440,442,449,456,470, 471,472,548,550	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	14.912,25
400	3. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	1.053.281,09
401	-(+) urteko aurrekontukoak	62.029,89
401	-(+) itxitako aurrekontutakoak	
165,166,180,185,410, 414,419,453,475,476, 477,502,515,516,521, 560,561	-(+) aurrekontukoak ez diren eragiketakoak	593.508,02
554,559	4. (+) Oraindik aplikatu gabeko partidak	0,00
555, 5581, 5585	-(-) behin betiko aplikatzeko dauden egindako kobrantzak	0,00
	-(+) behin betiko aplikatzeko dauden egindako ordainketak	
	I. Diruzaintzako gerakina guztira (1 + 2 - 3 + 4)	0,00
4900,4901,4902,4903	II. Kobrantza zalantzarriko saldoak	
	III. Hornidurak	840.221,14
	IV. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I - II - III)	328.833,04
		880.203,39

Beraz, aurtengo ekitaldia likidatzean diruzaintzako gerakina guztira 2.049.257,57 eurokoa izan da; horietatik:

= 840.221,14 euro, hau da, kobrantza zalantzarriko saldoen hornidura, kredituen zenbatekoen balio-galera zuzkitzera zuzendu da.

= 328.833,04 euro, entitateak dohitu duen hornidura da, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak otsailaren 15ean emandako aholkuaren ondorioz, KUPOAREKIN erlazionatutako gertakizun posibleari aurre egiteko. (Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko desadostasunak)

= 880.203,39 euro, hau da, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina, eta berau erabili ahal izango da, kreditu aldaketak finantzatzeko (bai finantzaketa lotua duten gastuetarako eta baita gastu orokorretarako ere).

12.- EMAITZAK EGIAZTATZEA

KONTZEPTUA	EURO
Aurreko ekitaldiko diruzaintzako gerakin gordina	2.324.478,26
+ Sarrerak itzultzeagatik sortutako hartzekodunak, 2015-12-31n	26,44 -275.247,13
+ Aurtengo ekitaldiko aurrekontu-emaiza (doitu aurretik)	
Aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira	2.049.257,57

13.- KREDITU GERAKINAK

Kreditu gerakinak, hain zuzen, behin betiko kredituei horien kargura onartutako obligazioak kenduz kalkulatzen dira.

21/2003 Foru Arauak 44.1 artikuluan agintzen duenez, ekitaldian sortutako obligazioei aurre egiteko beharrezkoak ez diren aurrekontuko ordainketa-kredituak (hau da, kreditu gerakinak) zuzenbide osoz balio gabetuko dira abenduaren 31n, ondorengo ekitaldiko aurrekontuari txertatu behar zaizkionean izan ezik.

Goian aipatutako Foru Arauak 32.1 artikuluan jaso du zein kasutan izango dugun kreditu gerakin horiek txertatzeko aukera. Hona hemen zerrenda:

- Transferitutako kredituak eta kreditu gehigarriak, baldin eta bi kasuetan ekitaldiko azken hiruhilekoan onartu badira.
- Erabilitako gastuetarako kredituak (D fasea), baldin arrazoi justifikatua dela-eta obligazioa ezin izan bada onartu.
- Gaitutako kredituak eta lotutako sarreraren menpeko beste kreditu batzuk.
- Kapital eragiketarako kredituak.

Ez-erabilgarritzat hartutako kredituak inola ere ezingo dira txertatu. Aurrekontuan txertatutako kredituek finantzatutako obligazioak, onartzekotan, txertaketaren ekitaldi berean onartu beharko dira; kreditu horiek, beraz, ezingo dira hurrengo urteko aurrekontuan berriro txertatu, lotutako sarrerak dituzten kapital eragiketarako kredituak izan ezik.

Horren arabera, ondoko taulan zehaztuta daude aurtengo ekitaldiaren likidazioaren emaitza diren eta txerta daitezkeen kreditu gerakinak. Txertaketa zuzitzeko, aurreko lau kasuetatik zeinetan aurkitzen diren ere zehazten da bertan. Nolanahi ere, kredituak txertatzea aukerakoa da eta, egitekotan, ekainaren 30a baino lehen onartu beharreko kreditu aldaketarako espediente baten (edo batzuen) bitartez egin beharko da.

PARTIDA	DESCRIPCIÓN	IMPORTE REMANENTES	SITUAC.				
			a	b	c	d	e
6 200.00.337.20 2016	Gastos bienes corrientes. Juventud	600,00		X			
6 200.00.335.00 2016	Gastos bienes corrientes. Euskara	413,37			X		
6 200.00.333.10 2016	Gastos bienes corrientes. Equip.cultur.	3.866,45		X			
6 200.00.231.00 2016	Gastos bienes corrientes. Asistencia soc	829,49		X			
6 200.00.171.20 2016	Gastos bienes corrientes. P. Oianguren	4.477,00		X			
1 226.99.241.00 2016	Formación para fomento de empleo	26.648,69	X	X			
1 227.04.231.10 2016	CONTRATO DE ASISTENCIA DOMICILIARIA	11.366,08		X			
6 480.00.231.30 2016	Transf. a familias. A.E.S.	13.424,68	X				
6 481.00.334.00 2016	Trans. instituciones. Promoc.cult.	10.488,00		X			
1 481.02.326.30 2016	SUBVENCION MANTENIMIENTO. OIANGUREN INST	6.000,00		X			
6 601.00.153.40 2016	Infraestructura urbaniz. Brigada obras	201.780,65		X		X	
1 601.01.171.20 2016	REPARACION DE CAMINO Y PARKING	20.000,00		X		X	
1 601.01.152.20 2016	INVERSIONES. ACCESIBILIDAD PREPARACIÓN DE UNA HUERTA ECOLÓGICA	50.000,00				X	
1 620.01.170.00 2016	LOCAL PARA CEREMONIAS CIVILES	30.000,00				X	
1 622.01.933.00 2016	COMPRA DE LOCAL EN JOSE ARANA BASERRIAREN KONPONKETA (2. SOLAIRUA)	128.000,00				X	
1 622.01.171.20 2016	Maquinaria y utillaje. Parques jardines	40.000,00				X	
6 623.00.171.10 2016	Maquinaria y utillaje. Brigada obras	1.620,15				X	
6 623.00.153.40 2016	INSTALACIONES. PUERTA A PUERTA	8.000,00				X	
1 623.02.162.30 2016	AIRE ACONDICIONADO CENTRO SOCIAL	2.458,06				X	
1 623.02.337.10 2016	UTILES Y HERRAMIENTAS. LIMPIEZA	65,61				X	
1 623.04.163.00 2016	FURGONETA. OBRAS	2.980,28				X	
1 624.01.153.40 2016	"Reposapies"	273,94				X	
1 625.01.231.20 2016	MEJORA DE LA SEÑALETICA URBANA	47,60				X	
1 625.01.432.00 2016	ADQUISICIÓN DE ORDENADORES Y EQUIPOS INF	9.314,65				X	
1 626.01.920.00 2016	ADQUISICION FONDOS BIBLIOGRAFICOS	3.022,86				X	
1 628.01.332.10 2016	REDACCION PLAN GENERAL	22,00				X	
1 642.01.151.00 2016	ESTUDIOS Y PROYECTOS. ALUMBRADO PUBLICO	30.000,00				X	
1 643.01.165.00 2016	ESTUDIO INSTALACIONES MAJORI	10.000,00		X		X	
1 643.01.342.00 2016	PLAN ESTRATEGICO BIENESTAR SOCIAL	60.000,00				X	
1 643.01.231.00 2016	TRANSFERENCIAS CAPITAL. MANCOMUNIDADES	21.780,00				X	
1 721.01.162.10 2016	INVERSIONES ESCUELA DEL GOIERRI	12.600,57				X	
1 781.01.241.00 2016	ANTICIPOS AL PERSONAL	30.580,00				X	
1 833.01.920.00 2016	AMORTIZACION DE CREDITOS CAJAS DE AHORRO	45.000,00				X	
1 933.01.011.00 2016		66.220,98				X	
TOTAL CRÉDITOS SUSCEPTIBLES DE INCORPORACIÓN		871.881,11					
TOTAL CRÉDITOS NO INCORPORABLES		606.547,21					
TOTAL REMANENTES DE CRÉDITO		1.478.428,32					

14.- ONDORIOAK

- 2016an gastatu gabeko Kreditu-Gastuak, 2017an inkorporatu ahal direnak 871.881,11€koak dira. Xehetasunez, aztertu behar dira 2017ra txertatu nahi diren kredituak. Txertatzeko nahiko finantzaketa dago Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinan (880.203,39€). Inkorporatu nahi diren kredituak, ekainaren 30erako txertatu beharko dira 21/2003 Foru arauak ezartzen duen bezala.
- Aipatzekoa da, kontu-hartzaileak ez duela eskuragarri izan ondasunen inbentarioa eguneratuta eta dagokien amortizazioak, horregatik, urteko amortizazioaren zuzkidura aurreko ekitaldiko gastu berbera egozte erabaki du. Komenigarria da lehenbailehen Udalaren ondasunen inbentarioa eguneratzea, kontuan izanda gaur arte izan duten amortizazio metatua; Lehenbailehen egin behar da inbentario berri bat.
- 2016ko abenduaren 31an, Ordizia Lantzenekin duen zorra San Juan auzoa urbanizatzearatik 611.802,62€koa da. Kopuru hau iaz Ordizia Lantzen elkartearen urteko kontuetan azaldu zen baina ez zen azaldu Udaleko urteko kontuetan. Kontu-hartzaile honek, ez du ulertzen zergaitia, baina nire ustetan bi entitateetan azaldu beharko litzateke. Horregatik, 2017ko aurrekontu luzatuan aholkatzen dut, Ordizia Lantzen-ek bere likidezia beharrei aurre egin ahal izateko, kontuan izatea, emango diren salmentak, kobratzeko eskubideen kobraketak, hala nola, berfinantzaketarik lortzen ez duten maileguen kuoten beharrak.

Eztabaida

Kontu-hartzaileak

2016 ekitaldiari dagokion likidazioa nola geratu den azaldu du. Likidazioaren puntu bakoitza zehaztu du labur-labur.

- Gastuen aurrekontuaren exekuzio-maila.
- Betebehar onartuen betetze-maila.
- Diru-sarreraren aurrekontuaren exekuzio-maila.
- Onartutako eskubideen betetze maila.
- Itxitako ekitaldietan ordaindu beharreko saldoen betetze-maila.
- Itxitako ekitaldietan kobratu beharreko saldoen betetze-maila.
- Diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako obligazioak.
- Finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenak.
- Zalantzazko kobraketa duten saldoen estimazioa
- Aurrekontuen emaitza
- Diruzaintza gerakina.
- Diruzaintza gerakinaren egiaztapena
- Kreditu gerakina
- Ondorioak

Ordizia Lantzen SArekin egindako zorra ere argitu du.

KABIak hartu baino lehen San Jose Egoitzako inbentarioa eguneratzea garrantzitsua iruditzen zaio.

Maiza and.:

Kabiaren xurgapen honi dagokionez, esan du bere garaian Egoitzaren ondasunak Kabiari uzteko baldintzei buruz galdetu zuela eta Dubreuil jaunak erantzun ziola Kabia bera arduratuko zela Inbentarioa egiteko enpresa bat kontratatzeaz.

Soto and.

Inbentariarik ez izateak harritu egiten du.

Dubreuil jn.

Badagoela esan du baina Kabiara pasatzeko eguneratu egin behar dela erantzun dio.

Kontu-hartzaileak

Egoitzan inbentario bat badagoela adierazi du nahiz eta eguneratu egin behar den, baina Udalean gaur egungo inbentarioak ez du kontabilitate-inbentarioarekin bat egiten eta horrek bai, horrek kezkatzen du.

Sukia andrea

Eguneratutako inbentarioa izatea garrantzitsua iruditzen zaio.

Udaleko Osoko Bilkurak izan du likidazioaren berri.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

7. 2017ko Plantila Organikoaren hasierako onarpena

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen 1.985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak Udal honetako 2017 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OOAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2017 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta onartzeko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurkeztu.

Aurrekoa kontuan hartuta, eta maiatzaren 17an egindako Plenoren Gaien Batzordearen aldeko irizpidearekin honako erabakia hartzea proposatzen da

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2017 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile eta funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.

Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta herri Antzokia) Plantilla organikoak hasieraz onartzea, 2017 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.

Hirugarrena.-Espedientea jendeaurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Eguren jn.:

Puntu hau eta hurrengo, Lanpostuen Balorazioari dagokiona mahai gainean uztea proposatu du Ordiziahitzen jarraipenerako Batzorde Paritarioaren deialdia egin behar zelako osoko bilkura aurretik eta azkenean ez delako bilera hori egin.

Gainera, Langile Batzordeak jakinarazi diotenaren arabera, osagarri Bereziko kopuruak ez daude eguneratuta.

Pedro Irastorza jauna

Langile Batzordeko ordezkaria denak, adierazi du, Batzorde horretan bitarteko langile kopuru altuaren gaia aztertuko zela irtenbideren bat bilatzeko.

Idazkariak:

Mahai gainean jarri diren kontuei buruz erantzun du.

Sukia andrea

Esan du bere taldeak ere ez duela puntuaren alde bozkatuko bitartekotasunei dagokienez eta hizkuntz eskakizunei dagokienez ez duelako errealitatearekin bat egiten

Bozketa

Gaia mahai gainean uztearen aldeko bozkak:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gaia zintzilik geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

8.- 2017ko lanpostu zerrendaren hasierako onarpena

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Idazkaritzak eta Kontu-hartzailtzak egindako arauzko txostena irakurri da, eta horri erantsi zaio lanpostuen gastuen azterketa eta aurreikusitako Sarrera Arruntekiko portzentajezko aldea.

Horrekin batera, hizkuntz normalizazio plangintzarako 86/1997 Dekretuaren 9 artikulua zehaztutako prozeduraren tramitazioa amaituta, Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2017 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik eta maiatzaren 17an egindako Plenoren Gaietan Batzordearen aldeko irizpidearekin honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2017 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eredian dagoen bezala.

Bigarrena.- Majori Kiroldesia SL-ko eta OAAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2017 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak hasieraz onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.

Hirugarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hambost lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Gaia mahai gainean uztea erabaki da aurreko puntuan adierazitako arrazoi berberengatik.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Gaia, beraz, zintzilik geratu da.

Batzorde Paritarioa ahalik eta azkarren egitea eskatu da.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuari heldu dio.

9.- HAPOn herritarren partaidetza programarako esparru proposamena onartzea

Proposamena

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPo) herritarrek parte hartzeko programarako esparru-proposamena onartzea

Ordiziako Udala Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) onartzeko idazketa-lana egiten ari da.

Une hauetan, AURRERAPENA izeneko agiria idazten ari da.

2017ko martxoaren 3ko txostenean, plana idazten ari den arkitekto andreak Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko fase desberdinetan herritarrek parte hartzeko programarako aukera desberdinak proposatu zituen, orientazio gisa eta modu irekian.

2017ko maiatzaren 17ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu zen onartzea honako

AKORDIORAKO PROIEKTUA

Herritarrek Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean parte hartzeko programarako esparru-proposamena onartzea; berau, herritarrek parte hartzeko prozesuko fase bakoitzean aipatu programa zehazteko oinarria izango da.

**ORDIZIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN
HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMAREN
ZEHAZTAPENA.
IRIZPIDE IREKIAK ETA ORIENTATZAILEAK.**

Ordiziako hiri-antolamenduko plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programaren inguruko proposamen irekia eta orientatzailea zehazten da.

1. Herritarrek parte-hartzeko prozesuaren lehen fasea.
**HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN (HAPO)
"AURRERAPENA" JENDAURREAN JARTZEA.**
 - A. **UDALAK AURRERAPENEAN JASOTAKO PROPOSAMEN NAGUSIEN
LABURPEN DOKUMENTUA LANDU ETA JENDAURREAN JARRI,
HERRITARREK EZAGUT DEZATEN.**
 - HAPOn egikaritze-laburpena.
 - Jendarteratzeko laburpena (irakurketa erraza).
 - HAPOn Aurrerapena aurkezteko agiria.
 - B. **UDALAK, HALA BADAGOKIO, AURRERAPENEAN JASOTAKO
PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA JASOKO DITUEN AGIRI
SINOPTIKO ETA DIBULGATZAILEA LANDU ETA BANATU,
HERRITARREI ZABALTZEKO ETA HORREN BERRI IZAN DEZATEN.**
 - C. **AURRERAPENENKO PROPOSAMENAK ORDIZIARREI AZALDU,
OROKORREAN ETA MODU IREKIAN, HORRETARAKO
PROGRAMATUKO DIREN JARDUNALDIEN BITARTEZ; HALA
BADAGOKIO, JARDUNALDI OROKORRAK EDOTA GAIKAKOAK
ANTOLATUTA.**

AUKERA:

Saio orokor bat edo bi garatu (eskaeraren arabera), honako hauei buruz:

- HAPOn aurkezpen orokorra.

Aukera eta proposamen orokorrak.

D. HALA BADAGOKIO, AURRERAPENEO PROPOSAMENAK JENDARTERATU, HERRIKO BERARIAZKO TALDEETARA BIDERATUTA (DENDARIAK, INGURUMENAREKIN ETA NATURA INGURUNEAREKIN, KULTURAREKIN... LOTUTAKO ELKARTEAK).

Hausnartu behar da beharrezkoa edota komenigarria ote den berariazko talde horiei jendarteratzea.

E. AURRERAPENEO PROPOSAMENAK EZTABAIDATZEKO BILERAK EDO TAILERRAK EGIN, premisa horiek aintzat hartuta:

- . Aipatu eztabaidarako tailerrak dinamizatzeko, koordinatzeko, moderatzeko... arduradunak izendatu.
- . Aipatu tailerrak burutu aurreko programazioa, eta parte hartuko duten pertsonak edo taldeak identifikatzeko irizpideak zehaztu.
- . Tailerren emaitzak, tailerretan planteatutako iradokizunak eta proposamenak barne, jasoko dituen oroitza-txosten bat landu.

"1". aukera:

Berariazko saioak landu, honako hauen ingurukoak:

1. Lurralde-eredua eta hirigintza-plangintza.
Aukera eta proposamen orokorrak.
2. Etxebizitza eta ekonomia-jarduerak.
Hornidurak: ekipamenduak eta espazio libreak.
Hirigintza-ondare katalogatua.
3. Mugikortasuna - irisgarritasuna eta zerbitzu-azpiegiturak.
Natura-/landa-eremua eta baldintzatzaile gainjarriak.

"2". AUKERA:

Berariazko saioak landu, honako hauen ingurukoak:

1. Lurralde-eredua eta hirigintza-plangintza.
Aukera eta proposamen orokorrak.
2. Etxebizitza eta ekonomia-jarduerak.
3. Hornidurak: ekipamenduak eta espazio libreak.
Hirigintza-ondare katalogatua.
4. Mugikortasuna - irisgarritasuna eta zerbitzu-azpiegiturak.
5. Natura-/landa-eremua eta baldintzatzaile gainjarriak.

NORTZUEK HARTUKO LUKETEN PARTE:

- a. Plangintzako aholkularitza-kontseiluko kideak:
- kontseiluaren barruan dauden udaleko kideak.
 - Auzo-elkartek.
 - Elkarte ekologistak eta ingurumenekoak.
 - Tokiko Agenda 21.
 - Ikastetxeak.
 - Sindikatuak.
 - Dendarien Elkarteak - Ordizian.
 - Enpresaburuaren elkarteak.
 - Emakumeen elkarteak, berdintasun-batzordea.

- Desgaitasuna duten pertsonen elkarteak, gizarte-ongizateko aholkularitza-kontseilua.
- Kultura-, kirol- eta gizarte-erakundeak.
- COAVN.

b. Bestelako organo edo kolektibo batzuk:

- Goieki.
- Goimen.
- Erretiratuen elkarteak - Zaharren egoitza.
- Turismo-bulegoa - Goitur.
- Ordiziako Azoka - D'Elikatuz.

F. HERRITARREK EZTABAIDAN PARTE HARTZEKO ETA BERAIEK IRADOKIZUNAK AURKEZTEKO DITUZTEN BITARTEKOAK ETA MEKANISMOAK ZEHAZTU (WEB-ORRIA, POSTONTZIA, ETA ABAR).

- JENDARTERATZEKO EGOITZA:
D'Elikatuz, beheko solairuko aretoa / Barrena / ...
- HERRITARREN ARRETA BULEGOA:
Izendatutako langileak, egutegia, ordutegia, arreta-lekua.
- WEB-ORRIA // POSTONTZIA:
- JENDARTERATZEKO EPEALDIA:
2 eta 3 hilabete bitartean. (2 hilabete, eta beste hilabete bateko luzapena).

2. Herritarrek parte-hartzeko prozesuaren bigarren fasea.
HASIERA BATEAN ONARTUTAKO 'HAPO' a JENDAURREAN EGOTEKO EPEA.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren barruan (HAPO) hasiera batean onetsitako dokumentua jendaurrean egoteko epean.

Fase hau aurreko faserako azaldutako eredu orokorren arabera burutzea proposatzen da, parte-hartze fase honetarako baliagarriak izaten jarraitzen duten heinean.

Halaber, bidezkoa deritzogu lehen partaidetza-fasean garatutako ekimen bakoitzean proposatutako iradokizunekiko izandako tratamenduaren berri emateko jarduera egokiak gehitzea.

3. Hirugarren fasea edo herritarrek parte hartzeko prozesuaren alderdi osagarriak.
HAPO BEHIN BETIKOZ ONARTU ETA GERO.

Udalak egoki iritziz gero, prozesu horren amaieran hirugarren fase bat landu daiteke, plan orokorra behin betikoz onartu eta gero sustatzekoa; hirugarren fase horren xedea litzateke horren berri herritarrei ematea.

Fase hori ondoko eredu edo jardueren bitartez gara daiteke:

- a. Udalak HAPON jasotako proposamen nagusien laburpen-dokumentua landu, herritarrek ezagut dezaten.

- b. Jendarteari azaltzeko hitzaldi bat edo bi antolatu, helburua izanik:
- Batetik, planaren proposameneren berri ematea.
 - Bestetik, onartutako plan orokorrean herritarrek aurrez izandako parte-hartzean egindako proposameneri emandako tratamenduaren berri ematea.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



10.- HAPOn Aurrerapen fasean herritarren partaidetza programa onartzea

Proposamena

HAPOn HERRITARREN PARTE-HARTZE PROGRAMA, ANTOLAMENDURAKO IRIZPIDEAK, HELBURUAK, AUKERAK ETA PROPOSAMEN OROKORRAK ZEHAZTEKO AURRERAPEN FASEAN.

2017ko martxoaren 9an, Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idatzi duen arkitektoak herritarrek parte hartzeko programa irekia eta orientatzailea landu zuen, Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeko, bideratzeko eta onartzeko.

HAPOn jarraipena egiteko batzordean eta bestelako udal-organotan aztertu ondoren (besteak beste, osoko bilkurako gaiak aztertzen dituen batzordea), eta, halaber, alkatetzak gai horren inguruan 2017ko maiatzaren 4an egin zuen bileran hartutako irizpenaren ondoren, Ordiziako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean herritarrek parte hartzeko programa-proposamena landu da antolamendurako irizpideak, helburuak, aukerak eta proposamen orokorrak zehazteko aurrerapen-fasean, behin betikoz baloratu eta zehazte aldera.

2017ko maiatzaren 17ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, honako AKORDIO PROIEKTUA proposatu da

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren AURRERAPEN fasean burutuko den herritarren partaidetzarako programa onartzea, ondorengo ekintzen bidez zehaztuko dena.

A. UDALAK AURRERAPENEAN JASOTAKO PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPEN DOKUMENTUA LANDU ETA JENDAURREAN JARRI, HERRITARREK EZAGUT DEZATEN.

- Jendarteratzeko laburpena (irakurketa erraza), HAPOn aurrerapenen edukiari dagokionez.
- HAPOn Aurrerapena aurkezteko agiria.
- HAPOn egikaritze-laburpena

B. UDALAK, HALA BADAGOKIO, AURRERAPENEAN JASOTAKO PROPOSAMEN NAGUSIEN LABURPENA JASOKO DITUEN AGIRI SINOPTIKO ETA DIBULGATZAILEA LANDU ETA BANATU, HERRITARREI ZABALTZEKO ETA HORREN BERRI IZAN DEZATEN.

- HAPOn aldizkari monografikoa.

C. AURRERAPENEN PROPOSAMENAK ORDIZIARREI AZALDU, OROKORREAN ETA MODU IREKIAN, HORRETARAKO PROGRAMATUKO DIREN JARDUNALDIEN BITARTEZ; HALA BADAGOKIO, JARDUNALDI OROKORRAK EDOTA GAIKAKOAK ANTOLATUTA.

Bi saio orokor garatu, bat euskaraz eta bestea gazteleraz, honako hauei buruz:

- HAPOn aurkezpen orokorra.
- Aurrerapeneko edukiaren irizpide, helburu, aukera eta proposamenen azalpena, orokorrean eta modu irekian.

D. HALA BADAGOKIO, AURRERAPENEN PROPOSAMENAK JENDARTERATU, HERRIKO BERARIAZKO TALDEETARA BIDERATUTA

Ordiziako HAPOn eta zehazki Aurrerapenaren ezagutzarekin erlacionatutako inkardinazio ekintzak; bere partaidetza prozedura programan, eta dinamika datorren Agenda 21 kurtsorako 2017-2018, antolaturiko ekintza eta lan talde bitartez.

E. AURRERAPENEN PROPOSAMENAK EZTABAIDATZEKO BILERAK EDOTA TAILERRAK EGIN, premisa horiek aintzat hartuta:

- . Aipatu eztabaidarako tailerrak dinamizatzeko, koordinatzeko, moderatzeko... arduradunak izendatu.
- . Aipatu tailerrak burutu aurreko programazioa, eta parte hartuko duten pertsonak edo taldeak identifikatzeko irizpideak zehaztu.
- . Tailerren emaitzak, tailerretan planteatutako iradokizunak eta proposamenak barne, jasoko dituen oroitzatutako txosten bat landu.

Berariazko hiru saio landu, honako hauen ingurukoak:

1. Lurralde-eredua eta hirigintza-plangintza.
Aukera eta proposamen orokorrak.
2. Etxebizitza eta ekonomia-jarduerak.
Hornidurak: ekipamenduak eta espazio libreak.
Hirigintza-ondare katalogatua.

3. Mugikortasuna - irisgarritasuna eta zerbitzu-azpiegiturak.
Natura-/landa-eremua eta baldintzatzaile gainjarriak.

Laugarren saio bat tailerretako partaideei ondorengo ezagutzera emateko:
hartutako udal
erabakiaren berri ematea HAPOn irizpide, helburu eta konponbide orokorre
dagokienez; eta bestalde, parte-hartze prozesuan izandako proposamen eta
iradokizunen emandako erantzuna udal akordio horretan.

Tailer eta bileretan parte hartuko luketenen proposamena:

- a. Plangintzako aholkularitza-kontseiluko kideak:
- kontseiluaren barruan dauden udaleko kideak.
 - Auzo-elkarteak.
 - Elkarre ekologistak eta ingurumenekoak (Landarlan)
 - Tokiko Agenda 21.
 - Ikastetxeak.
 - Sindikatuak.
 - Dendarien Elkarreak - Ordizian.
 - Enpresaburuaren elkarreak.
 - Emakumeen elkarreak, berdintasun-batzordea.
 - Desgaitasuna duten pertsonen elkarreak, gizarte-ongizateko aholkularitza-kontseilua.
 - Kultura-, kirol- eta gizarte-erakundeak.
 - COAVN.
 - Herritarrak
 - Udal teknikariak
 - Udal langileen ordezkariak
- b. Bestelako organo edo kolektibo batzuk:
- Herritarrak
 - Goimen.
 - Erretiratuen elkarreak - Zaharren egoitza.
 - Turismo-bulegoa - Goitur.
 - Ordiziako Azoka - D'Elikatuz.

F. HERRITARREK EZTABAIDAN PARTE HARTZEKO ETA BERAIEN IRADOKIZUNAK AURKEZTEKO DITUZTEN BITARTEKOAK ETA MEKANISMOAK ZEHAZTU (WEB-ORRIA, POSTONTZIA, ETA ABAR).

- JENDARTERATZEKO EGOITZA:
D'Elikatuz/ Barrena / ...
- HERRITARREN ARRETA BULEGOA:
Izendatutako langileak, egutegia, ordutegia, arreta-lekua.
- WEB-ORRIA // POSTONTZIA:
- JENDARTERATZEKO EPEALDIA:
2 hilabete bitartean eta luzatzeko aukera egoera/eskaeraren arabera.

Eztabaida

Alkate jn.

Aurrerapen faserako martxan jarri nahi den herritarren partaidetza programa azaldu du labor-labur.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



11.- HERRI ANTZOKIA EAko Gobernu Batzordeko kideak izendatzeko proposamena

Proposamena

HERRI ANTZOKIKO GOBERNU BATZORDEKO KIDEAK IZENDATZEA

2015ko uztailaren 16an egindako aparteko bilkuran, Herri Antzokia Erakunde Autonomorako ordezkariak izendatzeko osoko akordioa hartu zen. Akordio horrek, hurrengoak izendatu zituen aipatutako Erakunde Autonomoko Gobernu Batzordeko kide:

- José Miguel Santamaría Eceiza, EAJ-PNVko ordezkari
- Arantxa Fernández Alvaredo, EAJ-PNVko ordezkari
- Belen Maiza Urrestarazu, EH-BILDUKo ordezkari
- Antxon Sanz Lekuona, ORDIZIA ORAINko ordezkari
- Iñaki Dubreuil Churruca PSEE-PSOEkko ordezkari

2017ko urtarrilaren 26an, Osoko bilkurak Antxon Sanz Lekuonaren ordezkari Maria Jesus Soto de los Santos izendatzea erabaki zuen, Antxon Sanzek zinegotzi karguari uko egin ziolako eta ondorioz, Batzordeko kide izateko baldintza galdu.

Dena den, hitzarmen horrek ez du bat egiten Erakunde Autonomoko Estatutuen 11.artikuluan izendaturik azaltzen diren ordezkariekin. Artikulu horretan, Gobernu Batzordeko kideak 5 izango direla adierazten da eta osoko bilkuran izendatuak izango direla, ondorengo ordezkariarekin: udaleko 3 ordezkari eta 2 Ordiziako herritar, guztiek debekatua izango dute aisia edo ikuskizunak eskaintzen dituzten saltokien jabeak edo bertan ordaindutako eginkizunen bat egitea.

2017ko maiatzaren 17an eginiko Osoko Bilkurarako Gaiien Udal Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo akordio proiektua onartzea proposatzen da:

1) HERRI ANTZOKIA Erakunde Autonomoko izendapenari dagokionez, 2015ko uztailaren 16an eta 2017ko urtarrilaren 26an osoko bilkuran onartutako akordioak indarrrik gabe uztea.

2) HERRI ANTZOKIA EAko Gobernu Batzordeko kide izendatzea ondorengoak:

- Arantxa Fernández Alvaredo, Lehendakari gisa.
- Belén Maiza Urrestarazu
- María Jesús Soto de los Santos
- Koro Etxezarreta Zubizarreta
- Julen Iraola Matxain

Akordio hau aipatutako erakundeari jakinaraztea dagozkion ondorioak sor ditzan.

Eztabaida

Alkate jn.

Proposamena zertan datzan azaldu du. Legealdi hasieran Erakunde Autonomoko estatutuekin bat ez datozen izendapenak egin zirela adierazi du. Beraz, indarrrik gabe geratzen dira aurreko izendapenak.

Sukia andrea

Esan du Batzorde hau aspaldi eratu behar zela eta eratu izanaz pozten da nahiz eta legealdia hasi eta 2 urte igaro. Hemendik aurrera Estatutu hauetan aurreikusten den moduan funtzionatzea espero du.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez Batzordea formalki eratu ez bada ere, lan egin dela.

Sukia andrea

Esan du gauzak ez dituela ondo adierazten edo ez zaiola oso ondo ulertzen. Berak soilik Batzordearen eraketari egin dio aipamen.

Dubreuil jn.

Bere ustez estatutuak aldatu beharko lirateke talde politiko guztiak Batzordean ordezkatura egon daitezen.

Kontu-hartzaileak

Esan du Osoko Bilkurako kide guztiekin hitz egitea gustatuko litzaiokeela Erakunde Autonomoaren forma juridikoa aztertzeko.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



12.- Gizarte zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasuna sustatzen diharduten elkarteei diru- laguntza izendunak esleitzea

Proposamena

GIZARTE ONGIZATE, OSASUN, MIGRAZIO ETA KOOPERAZIO SAILAK KUDEATUTAKO DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK EMATEA

2017ko maiatzaren 7an Ordiziako Udaleko **GIZARTE ONGIZATE, OSASUN, MIGRAZIO ETA KOOPERAZIO** saileko delegazioa bildu zen. Beste gai batzuen artean, aipaturiko sailaren eskuduntzan lan egiten duten elkarteei diru-laguntzak emateko prozedura hastea adostu zen.

Horretarako, estatuko 38/2003 diru laguntza lege orokorrean (22.2.a) artikulua) eta 887/2006 Errege Dekretua – dirulaguntza erreglamentuan – (65.1 artikulua) ezarritako baldintzak kontuan hartuta, Gizarte Ongizate, Osasun, Migrazio eta Kooperazio saileko delegazioak Udalbatzako gaien batzorde informatzaileari lehenengo eta Udalbatzari ondoren proposatzen dio bere onarpenerako:

AKORDIO PROPOSAMENA

2017ko udal aurrekontuetan " izendun " edo nominatibo gisa jaso ditzala elkarte hauen aldeko dirulaguntza hauek:

Gutxitu behar den partida	Kontzeptua	Kopurua	Handitu behar den partida	Entitate onuraduna	Helburua	kopurua
1 481.01.337.10.11 00 2017	Diru-Lagunt. Jard.. Jubilatuen Egoit.	11.800	1 481.01.337.10.11 00 2017	ZUHAIZTI JUBILATUEN ETA PENTSIODUNE N ELKARTEA	AUTONOMIA SUSTATZEKO ETA DEPENDENT ZIA PREBENITZE KO PROIEKTUAK ETA EKINTZAK	11.800
1 481.04.230.20.10 00 2017	Diru-lagun. Ipar -Hego	10.500	1 481.05.230.20.10 00 2017	EUSKAL FONDOA EUSKAL TOKI ERAKUNDEEN LANKIDETZARA KO ELKARTEA	GARAPENER AKO EUSKAL LANKIDETZA LOKALEKO PROIEKTUAK	10.500

Eztabaida

Alkate jn.

Labur azaldu du proposamena ZUHAIZTI eta EUSKAL FONDOARI diru-laguntzak emateko dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5 eta ORDIZIA ORAIN 2)

Kontrako botoak: 1 (PSEE-PSOE 1)

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



13.- Altamirako Auzokideen Elkartek aurkezturiko mozioa

Proposamena

Bizilagunen Elkartek, Altamira kalearen konponketa proiektuaren gaitzespena ezagututa, Osoko Bilkurari eskatu nahi da honetarako aurreikusita zegoen obra hori egiteko. Aldi berean, Udalari eskatzen diogu, eskatu ditugun beste hainbat obra egiteko, Bizilagunen Elkartearen lokala adibidez eta suhiltzaileen pasealekuko argiteria hobetu. Entzunak izatea espero dugu eta gure eskaerak betetzea, horrela ez baikara auzo baztertua sentituko.

Eztabaida

Alkate jn.

Azaldu du Altamirako bizilagunek mozio bat aurkeztu dutela, urte honetarako auzoko inbertsioetarako aurreikusita zeuden obrak burutzeko eskatuz, eta aurrekontuak onartu ez direnez hortxe geratu dira.

Bizilagun batek mozioa azaldu du.

Pasa den urtean gobernu taldeari auzoaren premia handienen berri eman zion, entzun egin zitzaion eta Okorro kalea asfaltatu zen.

Orain, aurrekontuak ez direnez onartu eta aurrekontu luzapenean gaudenez, ezin izango dira aurreikusitako obrak burutu.

Talde politiko guztiei aurreikusitako obrak burutzeko adostasuna lortzeko eskaera egin die, eta horrekin batera esan die Udal ordezkariak hautatzen direnean udalerrria kudeatzeko hautatzen direla.

Eguren jn.:

Esan du idatziaren bidez ondorioztatzen dela jasotako informazioa ez dagoela osatua, igogailua ipintzearena ere hor baitago eta gaia geldirik dago, baina horrek ez du esan nahi aterako ez denik.

Bizilagunek zerbait eskatzeko prozedurak beste bide bat jarraitu behar lukeela uste du. Ez da egokia auzo edo bizilagun bakoitza osoko bilkurara etortzea berea eskatzera.

Gainera, adierazi du, ez onartzeak ez duela esan nahi onartuko ez denik, baizik eta momentuz ez direla akordio batera iritsi.

Bere ustez osoko bilkura ez da eskaerak egiteko bidea. Beste auzo eta bizilagun batzuek ez dituzte beraien eskaerak ekarri osoko bilkurara.

Nolanahi ere mozioaren alde bozkatuko dute.

Beste bizilagun batek:

Esan du Elkartek egiten duen lanari esker Altamira gaur egun ez dela auzo marjinala.

Sukia andrea

Legealdi hasieran Elkarteko kideekin izan zuen bileraz gogoratzen dela esan du eta taldekoak berriak zirenez auzo eta bizilagunekin lan egiteko batzordeak eratzeaz aritu ziren. Gobernu taldeak esan zien ez zela beharrezkoa.

Altamirako inbertsioei dagokiena beste puntu batean aztertuko da, inbertsioen akordioari dagokiona.

Arazoari irtenbidea emango zaio udalerrri osoko plan integral baten barruan.

Gaineratu du gobernu taldeak ez dituela eskatu energia eraginkortasunaren inguruko auditoriak egiteko diru-laguntzak.

Bere ustez informazio guztia izatea garrantzitsua da.

Soto and.

Adierazi du aldaketa guztiek gauza positiboak edo negatiboak ekar ditzaketela, eta beraiei buruz esaten dela jarrera negatiboa dutela baina esan du hori ez dela horrela.

Dubreuil jn.

Esan du auzoarekin harremanak izaten jarraituko dutela eta auzoa hobetzeko ekimenak proposatzen jarraituko dutela.

Alkateak

Puntua gai zerrendatik kentzea proposatu du 2017 urterako inbertsioen akordioan aztertuko baita.

Aurkeztutako mozioa alde batera uztea proposatu da beraz. Bizilagunak horren alde azaldu dira.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5 eta ORDIZIA ORAIN 2)

Kontrako botoak: 0 (PSEE-PSOE 1)

Abstentzioa: 0

Mozioa alde batera utzi da.



14.- 2017rako Inbertsio Akordioa

Puntuaren ordena aurreratu da.

Alkate jn.

Jakinarazi du talde politikoek bilera egin dutela inbertsioak aztertzeko eta akordio batera iristeko. Proposatzen den inbertsio zerrendak bat egiten du oinarrian aurreko osoko bilkuran aztertu zen proposamenarekin.

Horrek atzerapena ekartzen du, baina horrez gain lan eta esfortzu handia suposatzen du teknikarientzat eta nahasteren bat edo beste ere ekar dezake.

Inbertsioak zerrendatu ditu labur.

Eguren jn.:

Asteartean gobernu taldearekin bilera egin zutela esan du eta azkeneko osoko bilkuraz geroztik izan duten lehenengo bilera izan dela. Zenbait kontu argitu zituzten eta gaur berriro etorri dira osoko bilkurara asmo onarekin. Alkateak bilera horretan adierazi zien zubiak eraiki behar direla eta gauzak adostu behar direla herriaren interesaren alde lan egiteko, baina bere ustez, gaur sare sozialetan idatzi duena ez doa bide horretik. Idatzian azaltzen diren esladi batzuk aipatu ditu, esaterako, EH-BILDU eta ORDIZIA ORAINen lehentasunen artean ez dagoela herria edo denbora asko galdu dela. Baina ezin diete errua beraiei bota, esan du Eguren jaunak. Ez zaie egokia iruditzen duela bi egun era batera hitz egitea eta gaurko idatzian duela bi eguneko mezua pikutara bidaltzea.

Borondate ona dutela esan du.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez idatzia maila pertsonalean idatzi duela eta hori dela bere iritzia baina oposizioarekin alderatuta, beraiek barregarri uzten badute ere berak ez duela hori egiten.

Sukia andrea

Uste du Alkateak atzera egin beharko lukeela sare sozialetan gaur idatzi duenarekin.

PLAN OROKORRA

Ezenarro jauna

Plan Orokorrari dagokionez, herritarren partaidetza programa beharrezkoa dela esan du eta horregatik partaidetza partida handitzearen alde bozkatuko dute. Baina hausnarketa bat egin behar dute plan orokorra etxean bertan egiten jarraitu behar ote den edo kanpora atera behar ote den Aurrerapena onartu ondoren.

Alkate jn.

Etxean egitea erabaki zen eta arrazoiak gogorarazi ditu. Gobernu taldeak aurreko legealdiaren eskema jarraitzen du eta ez du ulertzen zergatik proposatzen den orain aldaketa.

Ezenarro jauna

Gaia aztertu behar dutela esan du, ez dute esan eredu aldaketako dutenik.

Dubreuil jn.

Udalerrriaren kasuistika inork baino hobeto ezagutzen duen pertsonala, geurea, dugula uste du eta Plan Orokorra idazten ari den arkitektoa oso profesionala dela. Dagozkion zerbitzu juridikoak emanez lana era egokian burutuko duela pentsatzen du.

Ezenarro jauna

Erantzun dio esanez lana kanpora aterako balitz ere, udal arkitektoak planaren lanketa eta tramitazioa kontrolatzen jarraituko lukeela. Berak nahi duena da modu baten zein bestearen gastuei buruzko informazioa.

Sukia andrea

Esan du ez dela gai horretan sartuko dagoeneko bere iritzia eman duelako.

Alkate jn.

Adierazi du beretzako oso garrantzitsua dela plan orokorrari dagozkion partidan onartzea trenbidearen desbideraketaren gaia hortxe dagoelako eta Ordiziarako aukera bat izan daitekeelako eta zapuztua gera daiteke ez badoa Plan Orokorrekin batera dagozkion aldietan.

Sukia andrea

Trenaren desbideraketari buruz esan du PP eta PNVren arteko akordioa proiektua idazteko dela soilik eta gero ikusiko dela.

SAN BARTOLOMEN OBRAK:

Alkate jn.

San Bartolomeko obren proiektua azaldu du.

Ezenarro jauna

Eremuan dagoen arriskua desagartzea da nahi dena, hori onartu du, eta horretarako diru-laguntza bat zegoen. Horri buruz galdetu du, ea hitzarmena sinatu den.

Esan du gai honen inguruko informazioa eskatu zutela, eta informazioaren zati bat eman ziotela maiatzaren 17an eta gaur egun oraindik ez dute informazio guztia.

Eremua hobetzea beharrezkoa dela, ez dute horri buruzko zalantzarik, baina oraindik ez dute proiektuaren berri. Inbertsioak egiten ari dira gainera eremuan eta alferrikakoak izan daitezke gero eremua garatzean.

Badakite udal teknikariak egiten ari direla proiektua eta horri buruzko informazioa eskatzen dute, horren barabera bozkatu ahal izateko.

Ez dute itsu-itsuan onartuko.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez proiektua talde politiko guztiei aurkeztu zitzaiela.

Ezenarro jauna

Esan du ez duela dokumentazio guztia jaso eta gainera ez duela proiektuak balio birmoldatzen ari direlako.

Alkate jn.

Gogorarazi du Fou Aldundiak ez duela hitzarmen bat sinatuko ez badago aurrekontu partidarik obrak burutzeko.

Eguren jn.:

Esan du, Foru Aldundiak kontuz jokatu duela, eta beraiek ere ez dutela ezer itsu-itsuan onartu nahi. Zentzuzkoa da informazio hori eskatzea. Ez daude proiektuaren aurka.

Sukia andrea

Eguren jaunaren norabide berean hitz egin du.

Soto and.

Galdetu du ea diru-laguntza galduko litzatekeen ez bada aurrekontu partidarik gaitzen.

Alkate jn.

Baietz erantzun dio.

Eguren jn.

Proiektua ia bukatuta dagoela esaten duenez, azkena emateko eskatzen dio eta lehenbailehen informazioa pasatzeko. Horri buruzko posizionamendua duten bezain laster ezohiko osoko bilkura bat egin daiteke diru-laguntzarik ez galtzeko.

Vazquez andrea:

Eguren jaunari esan dio eremuko arrisku hori desagerrarazi egin behar dela eta proiektuak aurrera egin behar duela duela urtebete onartu baitzen (2016ko martxoa).

Eguren jn.:

Erantzun dio esanez ez dutela partida bat onartuko zertan gastatuko den jakin gabe. Burutu behar dela eta, ez du zalantzan jartzen horretan bat egiten dutela.

Vazquez andrea:

Errepikatu du adostasunera heldu beharko dutela proiektua aurrera eramateko. Talde politiko guztiei zuzendu zaie. Duela gutxi istripu bat egon zen eta zorionez ez zuen ondorio larririk izan. Vazquez andrea Soto andreari zuzendu zaio esanez beraiek ez dutela inor iraindu mozioan. Galdetu dutena da ea galdu egin zen edo galdu daitekeen Foru Aldundiarekin hitzartutako diru-laguntza proiekturako.

Gonzalez jn.

IRABAZIkoa, batzordera etorria, bere ustez ez da onartuko bere taldeak osoko bilkuran aurkeztu duen mozioa baina pozik geratuko litzateke bilkurak hurrengo osoko bilkuran onartuko duen konpromisoa hartzen badu eta diru-laguntza hori gauzatzen bada.

Mozioa 2017 urterako inbertsio akordioa aztertu ostean aztertu behar litzateke gai-ordenean. Ordena hori izatea zen logikoa, izan ere, inbertsioen eztabaida ostean eta puntuaren bozketako emaitza ikusita, IRABAZIK mozioaren eztabaida hurrengo osoko bilkuran eztabaidatzea proposatuko zuen.

Alkate jn.

Esan du diru-laguntza jasotzeko baldintza aurrekontu partida izatea dela eta ez proiektua onartzea.

Ezenarro jauna

Erantzun dio esanez hori ez dela horrela diputatuak esan duelako Batzar Orokorretan zain daudela proiektua noiz idazten den hitzarmena sinatzeko.

Alkate jn.

Berrir erantzun dio esanez hori ez dela horrela.

BARRENA PARKINGA

Eguren jn.:

BARRENA PARKINGerako proposatutako inbertsioari buruz, esan du ez dagoela ados oinezkoen aldeko apostu handiagoa egin behar litzatekeelako. Proiektuaren aurka daude filosofiagatik baina gainera aurreko urteetako azterketa batzuk daude eta horiek ondorioztatzen dute aparkaleku gehiago behar direla.

Bere garaian EAJ-PNVren proposamena izan zen.

Adierazi du kalean herritar batzuek esan diotela Alkateak adierazi diela 2.000.000 euroko diru-laguntza bat dagoela parking-a egiteko, baina jakin nahi dute nondik datorren ditu hori. Diruaren xedea merkataritza, azokak eta abar baldin badira, ez zaio iruditzen aparkalekua eraikitzea denik laguntza horien xede egokiena.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez irisgarritasun planak ez diola aparkalekuak falta ez direnik, baizik eta Ordiziako egoiliarrentzako ez dagoela beharrik. Laguntza horiek Europatik datoz eta ez dizkiete atea ixten beste proiektuei. Bere ustez Ordizia erakargarri bat egin behar bat hona etortzen den jendearentzat.

Aranburu jauna.

Eguren jaunari erantzun dio kanpoko jendeari askotan entzuten diola Ordizian ezin dela aparkatu.

ERABILERA ANITZEKO PARKEA

Ezenarro jauna

Erabilera anitzeko parkeko inbertsioari buruz esan du behar hori badagoela, ez du zalantzarik baina bere ustez gaia kirol azpiegituren mahaian aztertu beharko litzateke eta gaia zintzilik uztea proposatzen du mahai horretan aztertzeko.

Alkate jn.

Erantzun dio esanez kirol taldeek adierazitako beharra dela.

Inbertsioak banaka bozkatu dira jarraian:

13300		Zirkulazioaren eta aparkalekuen antolamendua										
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ	
1	3552	DESFRIBILADOR	0,00	3.300,00	3.300,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	
623.04.133.00												
2017												

13500		Babes zibila.										
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ	
1	3553	DESFRIBILADOR	0,00	3.300,00	3.300,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	
623.04.135.00												
2017												

15100		Hirigintza: plangintza, kudeaketa, exekuzioa eta hirigintza-diziplina.										
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ	

1 642.01.151.00 2017	3854	CREDITO DE COMPROMISO 3 AÑOS; REDACCION DEL PLAN GENERAL	0,00	2017: 47.836,00 2018: 47.836,00 2019: 47.836,00	2017: 47.836,00 2018: 47.836,00 2019: 47.836,00	0,00	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ
		PARTAIDETZA PROZESUA	0,00	30.000,00	30.000,00	0,00	EZ	EZ	BAI	BAI	BAI
1 642.02.151.00 2017		OBRAS Y PROYECTOS SAN BARTOLOMÉ	0,00	380.000,00	380.000,00	286.000,00	HURRENGO PLENOAN ESTABAIDATZEKO GERATU DA, BERAZ EZ DA BOZKATU				
1 642.03.151.00 2017		REDACCION PROYECTO DEL PARKING	0,00	60.000,00	60.000,00	0,00	BAI	BAI	EZ	EZ	EZ

15340		Obretako Brigada									
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 601.01.153.40 2017	3518	ESPALOIEN KONPONKETA	0,00	125.000,00	125.000,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

1 643.01.153.40 2017	ESPALOIEN KONPONKETA : obra proiektuaren azterketa egiteko	0,00	25.000,00	25.000,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI	
----------------------------	---	------	-----------	-----------	------	-----	-----	-----	-----	-----	--

16500	Kale-argiteria.										
-------	-----------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Partida		#;REF!	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 643.01.165.00 2017	3851 ESTUDIOS Y PROYECTOS. ALUMBRADO PUBLICO	0,00	25.000,00	25.000,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

17000	Ingurumenaren administrazio orokorra.										
-------	---------------------------------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Partida		PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 620.01.170.00 2017	3527 PREPARACIÓN DE UNA HUERTA DE OCIO	0,00	20.000,00	20.000,00	6.500,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

17110 Parke eta Lorategiak											
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 622.01.171.10 2017		ERABILERA ANITZEKO PARKEA	0,00	30.000,00	30.000,00	0,00	BAI	BAI	BAI	EZ	BAI

17120 Oianguko parkea											
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 601.01.171.20 2017	3520	ALTZARIAK	0,00	10.000,00	10.000,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

23100 Lehen mailako gizarte-laguntza.											
Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 643.01.231.00 2017	3861	PLAN ESTRATEGICO BIENESTAR SOCIAL	0,00	20.000,00	20.000,00	20.000,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

33720 Gazteria											
Partida		#iREF!	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ	
1	643.01.337.20 2017	GAZTEDEI PLANAK (Plan de juventud)	0,00	18.000,00	18.000,00	0,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

34100 Majori kiroldgia											
Partida		PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ	
1	731.01.341.00 2017	3612 APORACION INVERSIONES. MAJORI	0,00	179.000,00	179.000,00	116.000,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

43200 Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena.											
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Partida			PRORROGATUA 2017	ALDAKETA PRORROGATUAN	BEHIN BETIKOA PRORROGATUA	KAPITAL SARRERA	EAJ (5 BOTO)	PSE (1 BOTO)	BILDU (5 BOTO)	ORDIZIA ORAIN(2 BOTO)	ONARTU DA? BAI/EZ
1 644.01.432.00 2017	3605	APP ORDIZIAKO AZOKA	0,00	16.000,00	16.000,00	16.000,00	BAI	BAI	BAI	BAI	BAI

Erabilitako finantzaioa onartu diren inbertsiotarako	346.100,00
---	------------



15.- Irabazi Ordiziaren mozioa San Bartolomen inbertsioak egiteko

Proposamena

Irabazi Ordizia taldeak Bildu eta Ordizia Orainen jokaerarekin bat ez datorrela adierazi nahi du. Izan ere, gure ekimenez 2016ko martxoko osoko bilkuran aho batez onartu zen akordioa gelditu dute. Ekimen horren bidez ordiziarren arazo bati irtenbidea eman nahi izan zitzaien, hain zuzen ere, San Bartolome auzoan Eroski paretik abiatuta tunelean trenbide azpian barrena doan bide-tarterako.

Aurrekontuetan hobekuntza-lan horiek egitea aurreikusia zegoenean eta 300 mila euroko diru-laguntza izanik, lan horiek martxan ez jartzea ulergaitza da. Larriagoa da oraindik diru-laguntza hori galtzea edo galdu izana. Aurrekontuak bertan behera utzi badira ere, ezin da onartu aho batez dagoeneko lortu diren akordioak alboratzea. Ordizian dagoen gatazkaren logikan oinarrituta, benetan gobernatzen eta agintzen duenaren arteko logika horretan, osoko bilkuran agintzen dutenek adi egon behar dute, baina ez soilik beraien ekimenei adi, baizik eta kolektiboki eta beraiek ere onartutako ekimenei adi ere bai.

Duela gutxi, espaloian barrena zihoan herritar bat, beste batekin gurutzatzean, espaloitik jaitsi, eta auto batek kolpatu zuen. Horrek horrela jarraitzen badu, inguru horretan istripu larriagoren bat izango dugu laster. Irabazi Ordizia arazo hau konpontzea nahi du, eta Udalean agintzen dutenek ez badute konpromiso hori hartzen, gaia gizarteratuko dugu eta gatazka eragingo dugu. Honako hau proposatzen dugu:

-Berehala eta osorik San Bartolome auzoko aurrekontu partida berreskuratzea edota trenbiderako egon daitezkeen plan berrietan irtenbide bat bilatzea, nahiz eta behin-behinekoa izan, baina behintzat berehalakoa izan dadila eremuan dagoen arriskua kontuan izanik.

Eztabaida

Vazquez andrea:

IRABAZIkoak, adierazi du IRABAZI ORDIZIAk aurkeztutako mozioaren testuan euskarara itzultitako testuan akats bat dagoela taldearen izendapenari dagokionean. Testuan azaltzen da (gutxienez bi aldiz) IRABAZI ORAIN eta IRABAZI ORDIZIA da. Euskarazko bertsioa zuzentzeko eskatu du.

Hori argitu ostean eta aurreko puntuko eztabaida eta bozketa ikusi ondoren, mozioa mahai gainean uztea erabaki da hurrengo osoko bilkurara arte, baina talde politikoek proiektu bat adosteko konpromisoa izan dezaten eta horretarako aurreratu partida bat prestatu dezaten eskaera egiten du.

IRABAZI ORDIZIAk bat egiten du proposamen honekin.

Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



16.- Ogasun eta Finantza Sailaren eta Ordiziako Udalaren artean elkarri informazioa emateko lankidetzeta-hitzarmenari atxikitako D-7 eranskina, GFAko legezko ordezkarien erroldarako sarbidea izatea ahalbidetzen duena.

Proposamena

Ogasun eta Finantza Departamentuarentzat eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren udalarentzat beharrezkoa da datu jakin batzuen lagapena, beraiei esleitutako zereginak garatzeko eta eskumenak betetzeko.

Zentzu honetan, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, jasotzen duenez, herritarrek ez dute herri-administrazioak dagoeneko bere esku duen datu eta agiririk aurkeztu beharrik. Herri-administrazioak bitarteko elektronikoz balia daitezke informazio hori eskuratzeko. Hala ere, datu pertsonalak direnean interesdunak baimena eman beharko du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak edo lege mailako arau batek ezarritako eran, salbu eta eskatutako datu edo agiri horiei aplikagarri zaien legeriak murrizpenak ezartzen dituenean.

Printzipio horrekin bat, administrazio bakoitzak interesdunei buruz euskarri elektronikoen dituen datuetara iristea erraztu behar die gainerako administrazioei, eta horretarako datu horiek segurtasunez, osorik eta baliagarritasunez iristeko behar diren baldintza, protokolo eta irizpide funtzional edo teknikoak zehaztu behar ditu, aipatutako Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, eta segurtasun eskema nazionalean (ENS) eta sistema elkarreragingarritasunaren eskeman (ENI) ezarritako beharkizunak beteaz.

2014ko apirilaren 3an, Ordiziako Udaleko osoko bilkurak informazioa elkarri trukatzeko lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuen, 2014ko otsailaren 24ko 148/2014 Foru Aginduak onartua A-1, A-2, A-3, A-4 eta D-1, D-2, D-3, D-4 eta D-5 eranskinekin batera.

Martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduaren bitartez, GFAko legezko ordezkarien errolda arautzen duen foru-agindua aldatu da, Gipuzkoako udalek aipatu errolda kontsultatzeko aukera izan dezaten.

Xede horretarako, aipatu foru-aginduak Ogasun eta Finantza Sailaren eta udalen artean informazioa elkarri trukatzeko lankidetzeta-hitzarmenari eranskin berri bat gehitzea onartu du, zehazki D-7 eranskina: "Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan dauden datuak kontsultatu".

Azaldutakoa aintzat hartuta, 2017ko maiatzaren 17ko osoko bilkurarako gaiak aztertzen dituen batzordearen aldeko irizpenarekin, proposatu zen onartzea honako

AKORDIO PROIEKTUA

LEHENA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ordiziako Udalaren artean informazioa elkarri trukatzeko lankidetzeta-hitzarmenari gehitutako D-7 eranskina izenpetzea, 2014ko apirilaren 3ko osoko bilkurak onartua eranskinekin batera.

BIGARRENA: alkate-udalburua gaitzea aipatu D-7 eranskina sina dezan Ordiziako Udalaren izenean eta hori ordezkatzuz.

HIRUGARRENA: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari akordio honen berri ematea, akordioaren egiaztagiriaren bitartez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



17.- Euskadiko Enogastronomia museo eta guneen sarera atxikitzeak akordioa

Proposamena

EUSKADIKO ENOGASTRONOMIA MUSEO ETA GUNEEN SARERA ATXIKITZEKO AKORDIOA

Euskadiko Enogastronomia Museo eta Guneen Sarea Elkartea irabazi asmorik gabeko elkarte da eta bere Estatutuen arabera helburu hauek ditu: Euskadiko gastronomia museo eta guneen garapenari lagunduko dioten ekimenak sustatzea eta Euskadiko enogastronomia museo eta guneak dauden eremuetan kultura, ekonomia eta turismo sustapena egitea.

Udalaren interesekoa da D'Elikatuz zentroa ere sare horretan sartzea bertako bazkide gisa, elkarteak antolatzen dituen eta xede sozialak dituzten ekimenetan parte hartu ahal izateko.

Hori guztia ikusita, eta 2017ko maiatzaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaiak aztertzen dituen Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako AKORDIO PROIEKTUA hartzea proposatu da.

1.- Ordiziako D'Elikatuz Zentroa bazkide gisa Euskadiko Enogastronomia Museo eta Guneen Sarera atxikitzeak eskaera egitea.

2.- Ordiziako Udalak adierazten du D'elikatuz zentroak elkarteko kide izateko baldintza guztiak betetzen dituela.

3.- Ordiziako Udalak, bazkide gisa sartzeko borondate osoarekin, Elkartearen Estatutuak eta Elkartean hartutako erabakiak errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

4.- Ordiziako Udalak, zentroa kudeatzen duen ERRO S.Coop. enpresaren Kudeatzaile den LEIRE ARANDIA ARANBURU andrea izendatzen du D'Elikatuz zentroa ordezkatzeko Elkartean, elkarteari jakinaraziko zaizkion ondorengo balizko ordezkapenei kalterik egin gabe.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak:13 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, ORDIZIA ORAIN 2 eta PSEE-PSOE 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.

18- Eskaerak eta galderak.

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.